

NAFARROAKO IRAKASLEEN OPOSIZIOAK: BEHARREZKO HAUSNARKETA

Beste urte batez, haserrea eta ondorioz datozen erreklamazioak Hezkuntza Departamentuko web orrian pilatu dira, Magisteritzako azken oposaketa deialdian jarraitutako aukeraketa prozesua dela eta. Aipatutako erreklamazioek hilabete batzuk pasa arte itxaron beharko dute beren ebazpena iristeko, behin prozesu osoa itxita dagoenean. Gainera, hurrengo ikasturtea antolatzeko larritasunak lekurik gabe utzi du funtzionario bilakatzearen koherentziari buruzko hausnarketaren garrantzia.

Departamentuak egin beharreko hausnarketaren lehenbiziko gakoa antolaketa eremuan dago. Giza Baliabideetan egondako langile eskasiak, antolaketa kaosa eragin du batzuetan; eta bestetan, epe administratiboak bete gabe eta partehartzaileek eskatzen zuten dokumentazioaren errebisio eskaerak erantzunik gabe geratu dira. Gainera, deialdian ez dira, beste erkidegotan gertatzen den bezala, ebaluazio irizpideak zehaztu, zeinak ekainaren 14an argitaratu ziren, frogak hasi baino 10 egun lehenago.

Eremu estrukturalari dagokionez, fase desberdinen segidak alde memoristikoa balioesten du irakaskuntza jardunerako gaitasunaren gainetik, zati teorikoarekin hasiz eta zati praktikoa defendatzeko aukerarik gabe utziz, zeinetan benetan praktikan jartzen diren pertsonen bertute profesionalak. Hainbatetan, aipatutako neurri hau Katalunia bezalako beste erkidego batzuetan konpondu izan da, prozesuari fase pedagogikoarekin hasiera emanez, hau da, Programazioa eta Unitate Didaktikoarekin, eta idatzizko azterketa bigarren une baterako utziz. Kasurik esanguratsuenak Musikako espezialitatean gertatu da, zeinetan, Nafarroan ez bezala, erkidego gehienetan bakarkako interpretazio frogak bat eskatzen den.

Proben garapenari dagokionez, ebaluazio irizpide urriak eta epaimahaiak erabilitako ponderazio errubriken informazio publikoaren gabeziak, biak edozein hezkuntza curriculumaren oinarritzko elementuak izanik, erakusten dute irakaskuntzako sarbidea erabat subjektiboa dela, zortearen eta tribunalaren nekearen menpekora dela hein handi batean. Are gehiago, esan beharra dago, programazioaren defentsan eta ez unitatearen defentsan erabiltzeko material lagungarriaren erabilpenaren aukera, 276/2007 ED-ak zehazten duena, eguneroko jardunarekin erabat uztarezina dela.

Ezin aipatu gabe utzi gaitegi eta testu liburuetako informazio subjektibo eta desfasatua, akademia eta sindikatu batzuei mesede egiten dien afera, interesez jositako industria txikia agerian utziz, funtzio publikora sartzeko gaitegi bakar batekin indargabeturik geratuko litzatekeena.

Bukatzeko, ekaitz perfektu hau sustatu eta bide ematen dion zutabe tinkoa, kontratazioa arautzen duen Lege Forala da, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak indargabetua, baina Departamentuaren errekurtsio bati esker indarrean dagoena. Honek, kontratazio zerrenden eta oposaketen arteko lotura ezartzen du, 2007an CDNko kontseilariak inposatu zituen lehentasunezko zerrenden bidez, ikasturtearen hasieran ikusi denez kontratazio arazoak konpondu ezinik utziz.

Lanean jarraitzeko, oposizioetara aurkezteko derrigorrezkotasuna eta eskeinitako postu murriztengatik plaza bat lortzearen benetazko helburuak estres ikaragarria eragin du, nahasmena ikastetxeetan, tribunalen gehiegizko hazkundea, egiazkotasunik gabeko kontratazio zerrendak eta beren ordenean sekulako iraulketa, esperientzia handiko irakasleak kontratazio aukerarik gabe utziz.

Aurreko Giza Baliabideen zuzendariaren profesionaltasun eza pairatu izan dugu eta espero dugu gobernu berriak antolaketa kaotiko hau kopontzea, aukeraketa prozesuen garapena berrikustea, bere faseak, kalifikazio irizpideak eta ponderazioa, urteroko baremazioaren eta zerrenden irekiera iraunkorraren alde egitea eta pertsona kontratatuen kudeaketa araudia berregitea, zeinak irakasleri ahularekiko tratua okertzen duen.

Arantxa Ruiz Vidorreta, STEILASeko kidea



Araba 📞 945 14 11 04
araba@steilas.eus

Bizkaia 📞 944 10 02 98
bizkaia@steilas.eus

Gipuzkoa 📞 943 46 60 00
gipuzkoa@steilas.eus

Nafarroa 📞 948 21 23 55
nafarroa@steilas.eus